

Abantoko parke teknologikoa: ezkerrek badu eredurik?

Abanton agintariek planteatu duten parke teknologikoak hizpidea sortu du azken hilabeteotan Bizkaiko mendebaldean. Autobideari itsatsirik landa lurretan 2.000 lanpostu sortuko omen dituen 4.0 industria proiektu moderno dator gurera. Finantzazio publiko-pribatuz energia arloa izango du ardatz. Foru Aldundia, Petronor eta Iberdrola dira ekimenaren sustatzaile nagusiak.

Eskualdeko udal guztien alkatetza duen EAJ-PNVko agintarientzat hori izango da gure inguruko langabezia tasa izugarriak amaitzeko antidotoa. Ikerkuntza eta balore erantsi handiko jardun garbia. Alkateek beraz, besoak zabalik egin diote men Sabin Etxeko nagusien proiektu berriari.

Ezkerreko oposizioak berriz, EH Bildu eta Podemosek, parke teknologikoa bai, baina kokapenarekin ezadostasunak adierazi ditu. Landa lurra mantentzearen garrantzia nabarmendu. Horrela Abantotik lau kilometrora, lehengo industriako lur abandonatuak proposatu du parkea eraikitzeko leku egoki gisa.

Langabezia egoera estrukturala da Bilbotik mendebalderako herrietan. 80ko industri krisialditik %15etik gorako tasak betikotuta daude gurean. Hau da, ikasketa eta prestakuntza apalena dituen Bizkaiko eskualdea da, milaka pertsona bizi dira, emakumeak gehienak, lan bal-



Kimetz Arana
BARATZEAINA

Azken 150 urtean kanpoko enpresa handien langile-morroi izan gara gurean. Ildo beretik dator EAJ-PNVren proposamena. Unibertsitateko ikerkuntza publikoa enpresa pribatuen zerbitzuko utziz

dintza ez onetan merkataritza-gunetako multinazionalen langile direnak. Horrela, jendeak begi onez hartzen du gaurko lan mundua hobetuko duen edozer proposamen. Hori delako egoeraren larrian, norberaren egunerokotasuneko estatusen gakoa. Horregatik kezka ikusten dut

aldaketaren indarrek parkearen kokapenez gain beste proposamenik plazaratu ez izana.

Azken 150 urtean kanpoko enpresa handien langile-morroi izan gara gurean. Ildo beretik dator PNVren proposamena. Unibertsitateko ikerkuntza publikoa enpresa pribatuen zerbitzuko utziz. Bertako ikertzaile eta teknikariak goraki estutu eta baliatuz, berriz ere bertokoen lanaz sortuko den aberastasuna eskualde kanpokoek eramateko.

Horren aurrean gure parke teknologikoak autonomo eta langile txikien beharrei erantzun behar lieke. Bere ardatzetan elikadura eta lurraldea barneratu, eskualdeko erresidentzia eta eskolentzako sukualdea proposatu. Kooperatibagintza zein merkataritza txikia indarberitu. Ikuspegi sozial, inklusibo eta generokoa landu eta horren inguruan jardun ekonomikoa sortu.

Gure eskualdeak badu muinean bihotz eraldatzailea, jendartea Bizkaiko beste eskualdeen bestelakoa da. Hemen PNVk irabazten du bera delako jendearentzako bizi proposamena gauzatzen duen bakarra. Has gaitetzen pentsamenduak zorrozten, ahal ditugun bezala gauzaten. Noizbait murrontzatik kanpo, bihotz eraldatzaile ezkeriarrak gailen daitezzen berriz gure udaletan ere. ■

MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu zailtarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otañui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA MASTERRA

UPV/EHU DONOSTIA

PLAZA LIBREK DITUGU

www.gezki.eus

UPV/EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboen Institutua
Instituto de Derecho Cooperativo y Economía Social de la UPV/EHU

GEZKI

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com